

## Ipar haizearen kontra



### ***Ipar haizearen kontra***

Jatorrizko izenburua: *Gut gegen Nordwind*

Egilea: Daniel Glattauer

Itzultzailea: Irati Elorrieta

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Alberdania (Batera Sailsa)

### MIKEL GARMENDIA

Noiz edo noiz edonori gertatu(tzen) zaigu e-mezu bat bidali nahi ez genuen helbide batera bidaltzea. Horixe dugu eleberri honen abiapuntua. Emmi Rothner-ek baja eskatzeko mezua bidali nahi du *Like* emakume-aldizkari ezagunera, baina tronpatu eta, Like ez baina Leike idatzi du helbidean, eta Leo Leikeri helduko zaio mezua eta honek honela erantzuten dio ironikoki: “Harpidetza etetea eskatu didan hirugarren pertsona zara. Antza denez, aldizkari txarra bihurtu da benetan”. Hortik aurrera, bien arteko harreman epistolar birtuala hasiko da, biek ala biek fisikoki elkar ez ezagutzeko duten konbentzimendu, asmo edo nahia ahulduz joango delarik harik eta...

Narratzailerik ez, beraz, elkarri bidaltzen dizkieten mezuen bitartez egingo dute atzera eta aurrera, mataza gero eta korapilatsuago bat harilkatuz, bata bestearen beharra eta dependentzia “arazo” izateraino iristen dela. Idazketaren bidez konkistatuko dute elkar, idatzitakoaren eta idazteko moduaren bitartez joango dira elkar ezagutzen, biluzten, seduzitzen. Gai interesgarria harreman honek planteatzen diguna errealitatearen eta fikzioaren arteko aldeari, bereizketari dagokionez. Horretaz gain, interesgarria, baita ere, testuak irakurlearengan sortzen duen adikzio, erakarmen edo are morboa ere, halako irrika bizi batez pasaratzen baitzikigu bata bestearen atzetik orrialdeak, Leo eta Emmiren artean zer gertatuko ote den jakin nahian.

Emma Rothnerrek arazoak ditu ipar haizeak gogor jotzen duenean loa biltzeko eta, hona hemen ere fikzioaren indarra, Leok mezu bidez, posta bidez, hitzaren bidez lasaitzen du Emma, halako gauetan honelakoak esaten baitzikio Leori letra larriz: “Zure ahotsa entzun nahiko nuke oraintxe bertan”.

Liburuaren amaiera ere, amaiera irekia nolabait, letra batek ebatziko du, senarrak Emmi ez, baina Emma deituko baitio une garrantzitsu batean emazteari, eta erabakigarria izango da hori.

Irakurketa arin eta azkarra da *Ipar haizearen kontra*, deskripziorik eta, esan dugunez, narratzailerik gabea. Sentimenduen adierazpen bizia, dialektikoa, bizia, Irati Elorrietaren itzulpenari esker hasi eta buka, irakurraldi jarraitua egitera garamatzana. Laster ateratzekoa omen da eleberriaren bigarren zatia, *Cada siete olas* (Alfaguara). Ez du erronka txikia egileak aurrean, lehen zatiaren tentsio eta sinesgarritasunari eutsi nahi izatekotan.